

## JESUS ETA MADALENA

1

Gaur Magdalako Maria dogu  
 pekatari ezaguna,  
 gure artean "Madalena" lez  
 ezagunago doguna.  
 Ze suertea Jesus ikusi  
 ta entzun eban eguna!  
 Jesus izan zan bakarrik bera  
 askatu eban Laguna.

2

Bila ta bila ebilen beti  
 nun hartuko atsegina,  
 edanago ta egarriago  
 barruko egarri-mina.  
 Dastatu eban Jesusek eutsan  
 maitasun garbi ta fina,  
 lehen zerbait zana, orain norbait da:  
 emakume erregina.

3

Gogo-bihotzez aldatzen danak  
 aldatzen ditu bideak,  
 Mariak ere aldatu ditu  
 lehengo pekatu-kideak.  
 Izen ta guzti ezautzen doa  
 Jesusen adiskideak,  
 euren artean bardinak dira,  
 danak dira senideak.

4

Maite dau Jesus, nahiz txalotua,  
 nahiz zapaldua gurutzez,  
 bere ondoan hortxe dakusgu  
 saminduta umezurtzez.  
 Bere barruan bizirik dago  
 nahiz hilda egon gorputzez,  
 zenbateraino ete egoan  
 bete-beterik Jesusez!

5

Jesus maitea lurpean itzi  
 eta etxera bakarrik,  
 Jesus lurpean herio-lotan,  
 Maria gauez itzarrik.  
 Goizean joanda, aingeru batek:  
 "Mari, ez egin negarrik;  
 biztu egin da, ez dago hemen  
 ez hezur eta ez harririk.

6

"Biztu da Jesus" entzun orduko  
 Mariaren zoramena!  
 Maitasuna dan lekuan errez  
 loratzen da sinismena.  
 Ikaslengana joan ta esan  
 eutsen aingeruarena;  
 lehen pekatari, gaur apostolu,  
 horixe da Madalena.